

@@@IRAGARKIA. Honen bidez, behean zehaztutako zehapen-espedienteetan emandako ebazpen-proposamenak jakinarazten dira, Trenbideen Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean ezarritakoa hausteari dagozkionak.@@@

Ebazpen horiek jakinaraztea lortu ez denez, iragarki hau argitaratzen da, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Interesdunak jakitun jartzeko ematen da aditzera hau, eta haientzat jakinarazpenaren ondorioak izan ditzan. Horretaz gain, honako ohartarazpen hauek egiten dira:

- Interesdunak 15 egun baliodun izango ditu, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hara, espedientea aztertzeko eta haren kopiak eskuratzeko, Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 1, 7. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz). Halaber, epe bera izango du egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Aplikatu beharreko legeriaren taulako laburtzapenen esanahia (1):

L: 39/2003 Legea, azaroaren 17koa, Trenbideen Sektoreari buruzkoa.

R: 2387/2004 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Trenbideen Sektoreari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 8a.

Instrukzio-egilea,
JOSE MANUEL ANABITARTE.